

FEDERAZIO LIZENTZIEN ARAUDIA



Arrauketako Euskal Federakuntza Federación Vasca de Remo

www.arrauna.eu

Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikokoaren** bidez eskuragarri dagoena.



LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T534G-MKH7

EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: <https://euskadi.eus/lokalizatzailea> / <https://euskadi.eus/localizador>

SINATZAILE / FIRMANTE: GORKA ITURRIAGA MADARIAGA | 2023/10/27 10:30:08

FEDERAZIO LIZENTZIEN ARAUDIA

1. ARTIKULUA

Arraunketako Euskal Federakuntzako federazio lizentzien izapideak eta igorpena Estatutuetan, Araudi honetan eta indarrean dagoen araudian aurreikusten denarekin egokituko da.

2. ARTIKULUA

1. Federazio lizentzia pertsonala eta besterezina da, bere titularrari Arraunketako Euskal Federakuntzako eta izapideen arabera dagokion lurraldeko kide egoera ematen dio. Txapelketa ofizialetan parte hartzeko ahaldunduz du, haiek kasu bakoitzean arautzen duten araudia kontuan hartuta.
2. Federazio lizentzia bakarra izango da eta bere titularrarentzat adskripzio bikoitza ekarriko du, alegia Arraunketako Euskal Federakuntzarekin eta dagokion lurralde federazioarekin.
3. Arraunketako Euskal Federakuntzak igorritako lizentziek bere partaideak goragoko mailako txapelketa ofizialetan parte hartzeko gaituko ditu, dagokion araudian xedatutako kasuetan eta baldintzetan.

3. ARTIKULUA

1. Arraunketako Euskal Federakuntza, Euskadiko Autonomia Erkidegoan bere kirol modalitateari dagozkion federazio lizentzia guztiak igortzeko eskumena duen erakunde bakarra da.
2. Arraunketako lurralde federazioak federazio lizentzia horiek bideratzeko eskumeneko erakunde bakarrak dira, eta horretarako ondorengo funtzioak betetzen dituzte:
 - a) Federatu nahi duen orori federazio lizentzien eskakizunen eta ondorioen inguruan informatzea.
 - b) Lizentzia eskariak, bideratzeko arduraren bere gain hartuko duen klub afiliatu baten bidez aurkeztuko dira.
 - c) Arraunketako Euskal Federakuntzari Lizentzien zenbateko osoa kobratzea eta zenbateko hori likidatzea, araudi honetan xedatuari jarraiki.
3. Lurralde federazioekin lotutako federazio lizentzien izapideak, gehienez 3 egun naturalen epean amaitu beharko dira, behar bezala formalizatutako bere eskaeraren datarekiko hurrengo egunetik aurrera. Bideratutako lizentzien igorpenarekin batera, lurralde federazioek Arraunketako Euskal Federakuntzari dagozkien kuoten likidazioen zenbatekoa ordaindu beharko diote, likidazioa beste prozedura baten bidez adosten denean izan ezik.

Arraunlari, patroik edo lemazainen afiliazioa kirol klub edo erakunde baten bidez egingo da eta honek egingo dio eskaera Arraunketako Euskal Federakuntzari, dagokion Lurralde Federazioak hura bideratzen duenean.

Beste autonomia erkidego batzuetatik datozen kirolariek Arraunketako Euskal Federakuntzari dagokion federazio lizentzia eskatu ahal izango diote, betiere eskaria urte bakoitzeko uztailaren 15a baino lehen egiten denean.
4. Arraunketako Euskal Federakuntza behartuta dago igortzera, edo ukatzera bere kasuan, dagozkion federazio lizentziak, gehienez astebeteko epean, behar bezala formalizatutako bere eskaerarekiko hurrengo egunetik kontaktzen hasita.
5. Interesdunak federazio lizentziaren igorpena eskatu ondoren Arraunketako Euskal Federakuntzak bere emakida edo ukapena aurreko atalean ezarritako epean espresuki jakinarazten ez badu, ematea onartu dela ulertuko da.
6. Federazio lizentziaren ukapena, edozein kasutan, arrazoitu egin beharko da.

7. Izapideak ukatuak izaten badira, errekurtsua aurkeztu ahal izango da F.V.R./A.E.F.-an 3 eguneko epean, beste 3ren buruan ebazpena emanez. Lizenziaren igorpena ukatzen denean, errekurtsua aurkeztu ahal izango da Kirol Justiziaren Euskadiko Batzordearen aurrean, 5 egunen buruan, ukapen horiek betiere arrazoituak izatea zainduz.

4. ARTIKULUA

Federazio lizenziaren igorpenak izaera arautua izango du; bere igorpena ezin izango da ukatu eskatzaileak hura eskuratzeko beharrezko baldintzak betetzen dituenean.

5. ARTIKULUA

Arraunketako Euskal Federakuntzako estamentuetako kideek, gutxienez federazio lizenziatik eratorritako ondorengo eskubideak izango dituzte:

- a) Horri dagokionez aplikagarria den araudian ezarritako forman, baldintzetan eta proportzioan ordezkartza izatea eta federazio organoetako partaide izatea.
- b) Arraunketako Euskal Federakuntzak antolatzen dituen jarduera guztietan parte hartzea, jarduera horiek arautzeko ezartzen diren arauak kontuan hartuta.
- c) Arraunketako Euskal Federakuntzaren eta dagokien lurralde federazioaren inguruan eskatzen den adina informazio jasotzea, indarrean dagoen legedian aurreikusitako terminoen arabera.
- d) Eskumeneko federazio organoetara jotzea federazio arauen konplimendua presatzeko.
- e) Egokitzen jotzen diren kontsultak eta erreklamazioak Arraunketako Euskal Federakuntzako arauen arabera aurkeztea.
- f) Federazio lizenziaren dokumentu egiaztagiria aurkeztea.

6. ARTIKULUA

Federazio estamentuetako kideek, Estatutuetan eta Arraunketako Euskal Federakuntzako Araudietan ezarrita daudenez gainera, ondorengo obligazioak bete beharko dituzte:

- a) Ezartzen diren kuotak ordaintzea.
- b) Federazio organoak ontzat emandako hitzarmen guztiak betetzea, betiere eskumeneko organoak horiek ezeztatu edo baliogabetu ez dituenean.
- c) Arraunketako Euskal Federakuntzaren eta dagokion lurralde federazioaren helburuak lortzeko modu aktiboan kolaboratzea.
- d) Bere kasuan betetzen dituzten karguekin lotutako obligazioak leialtasunez betetzea.
- e) Euskadiko eta lurralde selekzioen deialdietara joatea, kirol txapelketetan parte hartzeko edo horiek prestatzeko.
- f) Lizenziak izapidetzeko Arraunketako Euskal Federakuntzari egin beharreko ordainketa guztiak egunean izatea.

7. ARTIKULUA

1. Federazio-lizentzia urtebetekoa izango da, eta kirol-denboraldi bati dagokio; denboraldia urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartekoa izango da.

Klub batek beste bati kirol denboraldian zehar komeni zaion arraunlariren bat edo gehiago eman ahal dizkio, denboraldi horretan gehienez emakida bat egin ahal izanik. Emakida hori onargarria izan dadin, ezinbestekoa izango da emandako arraunlaria edo arraunlariak klub lagapen-hartzailean 8 (zortzi) eguneko aurrerapenarekin alta ematea, lehiatutako azken modalitatea eta oraingoa berdinak izaten direnean; edota 4 (lau) eguneko aurrerapenarekin, lehiatutako azken modalitatea eta oraingoa ezberdinak izaten direnean, klub berriarekin lehiatuko duten lehenengo estropadan. Emakida hau indarrean dagoen denboraldia amaitu arte aintzat hartuko da, horrela, bien bitartean, emana izandakoa ezin izango da beste klub batean alta eman, ezta lagatzailerara itzuli ere. Emakida bat egitean, hau estropada bakoitzean akreditatu egin beharko da, federazio lizenziarekin batera erakutsi beharko den uneko emakida dokumentuarekin.

Arraunlari bakar batek ere ezin izango du txapelketetan bi klub baino gehiagoren alde parte hartu, denboraldi berdinen garapenean, emakidagatik edo jatorrizko klubak emandako askatasunagatik.

2. Arraunketako Euskal Federakuntzaren Batzorde Nagusiak, bere kasuan, kirol denboraldi baten azpitik dagoen iraupeneko federazio lizentzien modalitateak ezarri ahal izango ditu, baina kasu horretan bere titularrek ez dituzte hauteskunde eskubideak erabili ahal izango.

8. ARTIKULUA

Arraunlariak ondorengo kategorietan sailkatzen dira:

1. HAURRAK . : 13 urte beteko dituzten urteko urtarrilaren 1etik 14 urte beteko dituzten abenduaren 31ra arte.
2. KADETE ... : 15 urte beteko dituzten urteko urtarrilaren 1etik 16 urte beteko dituzten abenduaren 31ra arte.
3. JUBENILA... : 17 urte beteko dituzten urteko urtarrilaren 1etik 18 urte beteko dituzten abenduaren 31ra arte.
4. SENIOR ... : Arraunlari guztiak barne hartzen ditu, 19 urte beteko dituzten urteko urtarrilaren 1etik aurrera.
5. BETERANOA: 30 urte beteko dituzten urteko urtarrilaren 1etik aurrerako arraunlari guztiak barne hartzen ditu; horrek ez du eragotziko arraunlari beterano batek senior lizentzia eskuratu ahal izatea.

Taldean lehiatzeko azken urtea, kategoriako adin mugari dagozkion urteak betetzean erabakiko da.

Lemazainari ez zaio adin irizpide hori aplikatuko eta tripulazioaren batez besterako ez da kontuan hartuko. Partaide bakoitza bere osasun eta egoera fisiko propioaz arduratuko da. Txapelketa bakoitzean parte hartzeko kategoria (senior edo beteranoa) hautatu ahal izango dute.

Haurrak kategoriaren azpitik dauden haietan, lurralde federazioek antolatzen dituzten eskola adineko txapelketetarako dagozkion kirol agintarien baimenak zainduko dira.

9. ARTIKULUA

1. Arraunketako Euskal Federakuntzako Batzordeak, urtero, federazio lizentziak bideratzeagatik eta igortzeagatik ordaindu beharko diren kuotak erabakiko ditu. Erabaki hori kirol denboraldia hasi baino lehen hartu beharko da.
2. Federazio lizentzien kuotak lizentziaren dokumentuan banakatuta islatu beharko diren ondorengo kontzeptuekin osatuta egongo dira:
 - a) Osasun asistentziarako derrigorrezko aseguruaren kuota, titularraren osasun arriskuak, erantzukizun zibila eta heriotza hala nola galera anatomikoa eta funtzionala bezalako arloetako kalte-ordainak estaltzen dituena.
 - b) Euskadiko Federazioaren egitura eta funtzionamendua finantzatzera bideratutako kuota.
 - c) Lurralde federazioaren egitura eta funtzionamendua finantzatzera bideratutako kuota.
 - d) Kuota, bere kasuan, goragoko lurralde esparruko txapelketetan edo jarduera ofizialetan parte hartzeko.
3. Arraunketako Euskadiko eta Lurralde Federakuntzek lizentzia bakoitzaren zenbateko garbia Euskadiko Federazioaren Batzorde Nagusiak onartutako terminoetan banatuko dute. Zenbateko garbi hori, zenbateko gordina, aurreko ataleko a) eta d) hizkietan ezarritako zenbatekoak murriztearen ondorioz ezarriko da. Inolako kasutan, lurralde federazioek edo Euskadiko Federazioak jasoko duten kopurua ez da arestian aipatutako zenbateko garbiaren % 50ren azpitik ezarriko.
4. Euskadiko Federazioak eta Arraunketako Lurralde Federakuntzek bere federatuen eskutik borondatezko kuota gehigarri bat jaso ahal izango dute, federazio horietako zerbitzuak eta jarduerak finantzatzeko.

10. ARTIKULUA

1. Arraunketako Euskal Federakuntza, indarrean dagoen legediaren arabera derrigorrezko arriskuen estaldurak bermatzen dituzten aseguru kolektiboak kontratatzeke eskumena duen bakarra izango da.
2. Aseguru horien kontratazio epea urtebetekoa izango da eta kirol denboraldi osorako estaldura eskainiko du.
3. Federazio lizentziek aseguru bat ekarriko dute berekin. Aseguru horrek honako arrisku hauen estaldura bermatuko du:
 - a) Erantzukizun zibila
 - b) Galera autonomikoen edo funtzionalen edo heriotza kasuen kalte-ordainak.
4. Lizentzien titularrek lege honetan araututako kirol-lehiaketetan parte hartzearen edo horien entrenamenduen ondorioz jasotako osasun-laguntza dagokion osasun-sistema publikoaren ohiko prestazioa da, baldin eta ez badute beste aseguru baten bidez estalitako osasun-kontingentzietarako prestaziorik.
5. Kirolari horiek Estatuko edo nazioarteko lehiaketa ofizialetan parte hartzeari lotutako osasun-laguntzaren aseguramendua dagokion Estatuko edo nazioarteko araudian ezarritakoa izango da.
6. Aurreko atalen arabera Arraunketako Euskal Federakuntzak kontratatutako derrigorrezko aseguruaren estaldurak berdinak izango dira pertsona fisikoen federazio lizentzia guztietarako, kasu bakoitzean dagokion lurralde federazioaren bereizketa alde batera utzita.
7. Arraunketako Euskal Federakuntzak, kirol denboraldi bakoitzaren hasieran, Eusko Jaurlaritzako Kirolen Zuzendaritzara edo honen ordezkari erakundera, bere ezagutzarako eta dagozkion xedetarako, adostuko liratekeen polizen erlazioa eta horien baldintzen kopia igorriko du, zeinetan bermatu diren estaldurak eta prestazioak zehaztuko diren.

11. ARTIKULUA

1. Federazio lizentziaren dokumentua elebiduna izango da, eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial biak berdintasunez erabiliko dira.
2. Federazio lizentziaren dokumentuaren edukia ondorengoak izango da:
 - a) Arraunketako Euskal Federakuntza federazio igorle modura identifikatzea.
 - b) Lizentzia bideratuko zukeen lurralde federazioaren identifikazioa.
 - c) Lizentziaren iraupena.
 - d) Pertsona edo klub titularren izena eta abizenak.
 - e) Pertsona fisiko titularren jaiotza-data.
 - f) Pertsona fisiko titularri dagokion kirol klub edo taldea.
 - g) Pertsona fisiko titularren kategoria.
 - h) Arraunketako Euskal Federakuntzako Presidentearen edo honek espresuki eskuordetzen duen pertsonaren sinadura.
 - i) Euskadiko Federazioaren zigilua.
 - j) Derrigorrezko aseguruaren kuota.
 - k) Euskadiko Federaziora bideratutako kuota.
 - l) Lurralde federaziora bideratutako kuota.
 - m) Kuota, bere kasuan, lurralde esparru goreneko txapelketetan edo jardueretan parte hartzeko.

12. ARTIKULUA

Pertsona berdinak kirol diziplina ezberdinen arabera federazio lizentziak erabili ahal izango ditu, Batzorde Nagusiak kirol diziplinen arabera lizentzia ezberdinen existentzia egiaztatzen badu.

Inolako kasutan ez da onartuko pertsona berdinak Lurralde Historiko bat baino gehiagotan kirol modalitate edo diziplina eta estamentu berdinetako lizentziak erabiltzea.

13. ARTIKULUA

Beste autonomia erkidego batetik datorren edozein pertsonak bertan emandako lizentzia erabiltzen duenak, Euskadiko Federazioek hura bideratu eta ondoren igorri dezaten, jatorrizko autonomia erkidegoan aipatutako lizenziaren baja edo ezeztapena akreditatu egin beharko du.

14. ARTIKULUA

Arraunketako Euskadiko Federakuntzako Batzorde Nagusiak federazio lizentzia eskuratzeko orduan, dagokion gaitasuna bermatzeko osasun azterketa egiaztatzeko beharra aginduko du, indarrean dagoen araudiaren arabera.



IMANOL GARMENDIA MAIZ
PRESIDENTEA



JOSEMARI DE DIEGO TORRES
IDAZKARIA



EBAZPENA, 2023ko urriak 27koa, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, ARRAUNKETAKO EUSKAL FEDERAKUNTZAren lizentzia araudiare aldaketak onartu, eta EAeko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzen duena.

ARRAUNKETAKO EUSKAL FEDERAKUNTZA EAeko Kirol Elkartearen eta Federazioen Erregistroan inskribatu zen 1985ko maiatzak 6an, 13 zenbakiarekin. Federazioaren lizentzia araudiaren aldaketak aurkeztu dira orain.

ARRAUNKETAKO EUSKAL FEDERAKUNTZA 2023ko martxoak 21ean egindako Ezohiko Batzar Orokorrean goian aipatutako araudia moldatzeko erabakia hartu zuen eta onarpen hori agiri bidez frogatu da.

Araudiaren aldaketak bat dator urtarilaren 31ko 16/2006 Dekretuan eta Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legean xedatutakoarekin.

Ondorioz, nire eskumenak erabiliz.

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- ARRAUNKETAKO EUSKAL FEDERAKUNTZAREN lizentzia araudia onartu eta EAeko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzea.

Bigarrena.- Legez ezarritako epean jakinarazteko agindua ematea.

Hirugarrena.- Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio bidea eta, bere aurka, pertsona interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioko Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuari hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

RESOLUCIÓN, de 27 de octubre de 2023, del Director de Actividad Física y Deporte del Gobierno Vasco, por la que se aprueba e inscribe en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco la modificación del Reglamento de licencias de la FEDERACION VASCA DE REMO.

A la vista de la redacción de la modificación del reglamento de licencias de la FEDERACION VASCA DE REMO inscrita en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco el 06 de mayo de 1985 con el número 13.

Resultando que la Asamblea General Extraordinaria de la FEDERACION VASCA DE REMO, celebrada el 21 de marzo de 2023, aprobó la modificación del reglamento arriba mencionado, y que tal aprobación se ha acreditado documentalmente.

Se considera que la modificación del reglamento es conforme con los preceptos del Decreto 16/2006, de 31 de Enero y de la Ley 2/2023, de 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen.

RESUELVO

Primero.- Aprobar e inscribir en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco el reglamento de licencias de la FEDERACION VASCA DE REMO.

Segundo.- Notifíquese en el plazo legal establecido.

Tercero.- Contra la presente resolución, que no agota la vía administrativa, las personas interesadas podrán interponer recurso de alzada ante el Consejero de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su notificación, de conformidad con lo establecido en los artículos 121 y 122 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Gorka Iturriaga Madariaga
DIRECTOR DE ACTIVIDAD FÍSICA Y DEPORTES/
JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARIA





EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

2010 EKA JUN: 29

DEPARTAMENTO DE CULTURA		Registro Orokor Nagusi	
Viceconsejería de Cultura		Registro General de Entidades	
Juventud y Deportes		SARRERA	IRTEERA
Dirección de Deportes		Zk. /	Zk. 309237

Jakinarazten dizut Eusko Jaularitzako Kirol Zuzendariak ebazpen bat eman duela, 2010eko ekainaren 22an. Hona hemen horren edukia hitzez hitz:

EBAZPENA, 2010eko ekainaren 22koa, Eusko Jaularitzako Kirol zuzendariarena, ARRAUNKETAKO EUSKAL FEDERAKUNTZAren Lizentzien Arautegia onartu eta EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzen duena.

ARRAUNKETAKO EUSKAL FEDERAKUNTZA EAEko Kirol-Elkarteen eta -Federazioen Erregistroan inskribatu zen 1985eko maiatzaren 6an, 13 zenbakiarekin. Federazioaren Lizentzien Arautegia erredaktatu da orain.

ARRAUNKETAKO EUSKAL FEDERAKUNTZAK 2010eko maiatzaren 26an egindako Ezohiko Batzar Orokorrean bere Lizentzien Arautegia onartzeko erabakia hartu zuen eta onarpen hori agiri bidez frogatu da.

Lizentzien Arautegi hori bat dator urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan eta Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean xedatutakoarekin.

Ondorioz, nire eskumenak erabiliz.

EBATZI DUT

Lehenengoa.- ARRAUNKETAKO EUSKAL FEDERAKUNTZAren Lizentzien Arautegia onartu eta EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzea.

Bigarrena.- Legez ezarritako epean jakinarazteko agindua ematea.

Hirugarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du eta, bere aurka, aukerako berraztertze errekurtoa aurkez dakiok Kirol zuzendariari hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera. Administrazioarekiko auzi-errekurtoa ere aurkeztu ahal izango zaio EAEko Auzitegi Nagusiari, jakinarazten den egunetik bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 22a.

Pongo en su conocimiento que con fecha 22 de junio de 2010, ha sido dictada Resolución por el Director de Deportes del Gobierno Vasco cuyo tenor literal dice lo siguiente:

RESOLUCIÓN de 22 de junio de 2010, del Director de Deportes del Gobierno Vasco por la que se aprueba e inscribe en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco el Reglamento de Licencias de la FEDERACION VASCA DE REMO.

A la vista de la redacción dada al Reglamento de Licencias de la FEDERACION VASCA DE REMO, inscrita en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco el 6/05/1985 con el número 13.

Resultando que la Asamblea General Extraordinaria de la FEDERACION VASCA DE REMO, celebrada el 26 de mayo de 2010, aprobó el Reglamento de Licencias y que tal aprobación se ha acreditado documentalmente.

El Reglamento de Licencias es conforme con los preceptos del Decreto 16/2006, de 31 de Enero y de la Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte de Euskadi.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen.

RESUELVO

Primero.- Aprobar e inscribir en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco el Reglamento de Licencias de la FEDERACION VASCA DE REMO.

Segundo.- Notifíquese en el plazo legal establecido.

Tercero.- Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, se podrá interponer, con carácter potestativo, Recurso de Reposición ante el Director de Deportes, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente de su notificación, o bien, se podrá interponer contra la misma, Recurso Contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses desde su notificación.

Vitoria-Gasteiz, 22 de junio de 2010.



KIROL ERAKUNDEEN ERREGISTROKO ARDURADUNA
RESPONSABLE DEL REGISTRO DE ENTIDADES DEPORTIVAS

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Kultura, Gazteria eta
Kirol Saiburuordetza
Kirol Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Cultura,
Juventud y Deportes
Dirección de Deportes

EBAZPENA, 2010eko ekainaren 22koa, Eusko Jaurlaritzako Kirol zuzendariarena, ARRAUNKETAKO EUSKAL FEDERAKUNTZAren Lizentzien Arautegia onartu eta EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzen duena.

ARRAUNKETAKO EUSKAL FEDERAKUNTZA EAEko Kirol-Elkarteen eta -Federazioen Erregistroan inskribatu zen 1985eko maiatzaren 6an, 13 zenbakiarekin. Federazioaren Lizentzien Arautegia erredaktatu da orain.

ARRAUNKETAKO EUSKAL FEDERAKUNTZA 2010eko maiatzaren 26an egindako Ezohiko Batzar Orokorrean bere Lizentzien Arautegia onartzeko erabakia hartu zuen eta onarpen hori agiri bidez frogatu da.

Lizentzien Arautegi hori bat dator urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan eta Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean xedatutakoarekin.

Ondorioz, nire eskumenak erabiliz.

EBATZI DUT

Lehenengoa.- ARRAUNKETAKO EUSKAL FEDERAKUNTZAren Lizentzien Arautegia onartu eta EAEko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzea.

Bigarrena.- Legez ezarritako epean jakinarazteko agindua ematea.

Hirugarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du eta, bere aurka, aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu dakiene Kirol zuzendariari hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera. Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa ere aurkeztu ahal izango zaio EAEko Auzitegi Nagusiari, jakinarazten den egunetik bi hilabeteko epean.

RESOLUCIÓN de 22 de junio de 2010, del Director de Deportes del Gobierno Vasco por la que se aprueba e inscribe en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco el Reglamento de Licencias de la FEDERACION VASCA DE REMO.

A la vista de la redacción dada al Reglamento de Licencias de la FEDERACION VASCA DE REMO, inscrita en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco el 6/05/1985 con el número 13.

Resultando que la Asamblea General Extraordinaria de la FEDERACION VASCA DE REMO, celebrada el 26 de mayo de 2010, aprobó el Reglamento de Licencias y que tal aprobación se ha acreditado documentalmente.

El Reglamento de Licencias es conforme con los preceptos del Decreto 16/2006, de 31 de Enero y de la Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte de Euskadi.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen.

RESUELVO

Primero.- Aprobar e inscribir en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco el Reglamento de Licencias de la FEDERACION VASCA DE REMO.

Segundo.- Notifíquese en el plazo legal establecido.

Tercero.- Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, se podrá interponer, con carácter potestativo, Recurso de Reposición ante el Director de Deportes, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente de su notificación, o bien, se podrá interponer contra la misma, Recurso Contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses desde su notificación.



KULTURA SAILA
Kirol Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Deportes

PATXI MUTILOA ALDIZABAL
KIROL ZUZENDARIA / DIRECTOR DE DEPORTES

